

## Lo haundiaren eremuetan

Oi zu , memoria...! uste nuke...:  
maitasunarekin bakarrik, egunsentitzen den,  
Lo haundiaren eremu bat zarela...!

Senpere Herrian,  
2023 urteko Maiatzaren 27 goizean,  
Euskal herriaren maitale asko,  
Lo haundiaren ate aintzinean,  
elkarrekin, supiztu gira.  
Hor, denboraren brumaren zolatik,  
Euskal historiaren monumentu baten harria  
erditik ideki zaigu ,  
deneri erakusteko:  
egundainotik egun artino,  
joan diren gure aintzineko euskaldun desgorpuztuen presentziak,  
hor zirela beti gure zain.  
Gure irrintzi, musika, abesti, hitzaldien bitartez,  
uste izan dugu iratzarri ginituela,  
baina ez ez, ez da hori gertatu, beraiek gaituzte  
beren "ether nizatu" firfirekin gure nortasuna etorkizuneratu...  
bai...bai ...goiz horretan gure arbasoak hor ziren gure inguruan,  
beren murmurioak entzun zitezkeen, euskaraz, euskal izaitez, erraten:  
"maitatzen dena ez dela eternitateki ahanzten"

\*\*\*\*\*

Senpere Herrian,ere,  
2023 urteko Maiatzaren 27arratsaldean,  
Hatsa elkarteko zonbaitek,  
Juankar Mugartzaren gidaritzaren pean,  
bigarren hitzordu bat kunplitu ginuen,  
sartuz oraino Lo haundiaren harpe misteriotsuaren zolan.

Hor, mundu honetatik joan diren :  
Koldo Zubeldia eta Alvaro Mundinano-Garcia,  
gure bi lagunak, ezpiritu hutsez jauntziak, aurkitu ginituen .

Baten margoek eta bestearen olerkiek  
errealitate berri batetan murgildu gintuzten,  
sortaraziz, beren gehiago ezagutzeko, ikus mina.  
Margoak hitzez bete ziren eta hitzak margoz,  
azkenean hitzak eta margoak nahasi ziren,  
eta sentitu ginuen, gure bazterrean ixurtzen ari zen Urdazuriko ibaiako ura  
euskal hitzez eta sentimenez betetzen .

Oi zu , memoria...! uste nuke...:  
maitasunarekin bakarrik, egunsentitzen den,  
Lo haundiaren eremu bat zarela...!

Auxtin Zamora